BESTELAKO XEDAPENAK

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

4847

AGINDUA, 2026ko urriaren 20koa, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko landa- eta itsasertz-eremuak dinamizatzeko gizarte-ekitaldietarako 2026. urteko laguntzak, minimis araubideari atxikitakoak.

Landa-ingurunearen Garapenaren ekainaren 30eko 7/2022 Legearen arabera, hauek dira landa-garapenaren printzipioak: «landa-ingurunearen jasangarritasuna eta funtzio-aniztasuna lortzea, lurralde-ikuspegi justu, orekatu eta jasangarri batetik; horretarako, landa-garapenaren ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-arloetako dimentsioetan hainbat printzipio txertatuko ditu, besteak beste, landa-eremuaren eta hiri-eremuaren arteko eta emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna, landa-eremuko emakumeen ahalduntzea, biodibertsitatea mantentzea, paisaiaren eta euskal landa-ingurunearen kultura-identitatearen zainketa, eta landa-eremu guztietan euskararen erabilerari eman beharreko bultzada».

Aipatutako legeak, orobat, landa-garapenerako helburu estrategiko hauek finkatzen ditu: «Erakundeen arteko beharrezko koordinazioa bermatzea EAEko landa-eremuen jarduera ekonomikoa sustatu eta dibertsifikatzeko, herrialdearen ekonomia jasangarria gara dadin laguntza emateko eta landa-eremu horietan biztanleria eta zerbitzuak ezarri daitezen, betiere landa-ingurunean funtsezkoa den lehen sektoreko jarduera errespetatuz»; eta, horrekin batera, «EAEko landa-biztanleen ongizate-maila hiri-biztanleen ongizate mailarekiko parekatzea, bai eta landa-ingurunearen despopulatzeari eta zahartzeari buelta ematea ere, funtsezko faktorea baita Euskadiko gizartearen eta lurraldearen kohesiorako».

Nekazaritza- eta arrantza-jarduerak alde batera uztea eta landa- eta itsasertz-eremuetan belaunaldi-erreleboa etetea gisako arazoek halako eremuetan bizi diren herritarren premiei eragiten diete, eta, beraz, eragin horren alderdi guztiak aintzat hartu behar dira, arazook aztertzeko orduan. Ildo horretatik, gizarte-ekitaldiak egitea garrantzitsua da landa- eta itsasertz-eremua biziberritzeko.

Izan ere, gizarte-ekitaldiek zeharkakotasuna eskaintzen diote landa- eta itsasertz-eremuari, hau da, energia endogenoak sortzeko eta askatzeko gaitasuna dute, gizarte- eta ekonomia-arloak zeharkatzeko gai direnak. Beharrezkoa da azpimarratzea bai gizarte-kohesioa eta identitatea, bai herri bateko edo landa- edo itsasertz-eremu bateko kide izatearen sentimendua. Alde horretatik, gizarte-ekitaldiak elementu intrintseko eta aglutinatzaileak dira. Hori dela-eta, garrantzitsua da landa- eta itsasertz-eremua dinamizatzeko gizarte-ekitaldiak sustatzea, aldi berean nekazaritza-jarduera alde batera uztearen eta belaunaldi-erreleborik ezaren krisia aukera gisa jorratuz, arazoari aurre egiteko modu berriak ahalbidetzeko estimulu gisa, baita gizarte-arlotik ere, antolakuntza-diseinu malgu batean oinarritutako eredu ekonomiko berrien barnean, ekimena eta lidergo pertsonala (ekintzailetza) eta sare irekiak (Internet, lankidetza-plataformak) konbinatuz.

Laguntza-programa honen bitartez, landa-aldean eta itsasertzean jarduerak egin daitezela sustatu nahi da, orain arte ekitaldi gehienak hiriguneetan egin baitira. Horregatik, beharrezkoa da ahalegin bat egitea ekitaldiok landa- eta itsasertz-eremuetara eraman daitezen. Gainera, landa-garapenerako laguntzak areagotzeko aukera bat da, diziplina anitzeko ikuspegi berri batetik. Programaren helburu estrategikoa da landa- eta itsasertz-eremuetan bizi-kalitate altua mantentzea, zerbitzuei eta ekipamenduei dagokienez; jarduera ekonomikoa sortzen ere lagunduko luke.

Horrela, bada, agindu honen xedea da 2026. urterako laguntzen deialdia egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) landa- eta itsasertz-eremuak dinamizatzeko gizarte-ekitaldiak sustatzeko. Laguntza horiek Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2026ko martxoaren 4ko Aginduaren bidez onartutako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota daude (agindu horren bidez, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren 2026, 2027 eta 2028rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen); eta, zehazki, hemen daude jasota: 5.1.2.6 neurria. «Landa-eremuko gizarte-ekitaldietarako laguntzak», Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila, Elikadurako eta Landa Garapeneko Sailburuordetza, «Hazkuntza- eta ongizate-eredua» ardatz estrategikoa, «Lehen sektorea eta arrantza» helburu estrategikoa, Landa Garapenaren eta Europar Politiken Zuzendaritza, 7112 «Landa-garapena» programa, «Landa-eremuko gizarte-ekitaldietarako laguntzak» dirulaguntza-lerroa.

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluak de minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 2023ko abenduaren 13ko Batzordearen 2023/2831 (EB) Erregelamenduan ezarritako de minimis araubidea aplikatu beharko zaie laguntza hauei. Era berean, agindu honetan aipatutako dirulaguntzak arau hauetan ezarritakoaren mende egongo dira: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen araubidea erregulatzekoa; 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzena –bertan jasota dago oinarrizko araudia–; eta 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, azken horren erregelamendua onartzekoa.

Bestalde, aurtengo ekitaldiko laguntza-deialdia egitea ahalbidetzen dute 1/2011 Legegintzako Dekretuak (maiatzaren 24koa, zeinaren bitartez, batetik, onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Erregimenari buruz indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina, eta, bestetik, arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatuko zaien aurrekontu-erregimena) eta 7/2025 Legeak (abenduaren 23koa, zeinaren bidez onartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko 2026ko Aurrekontu Orokorrak).

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Deialdia.

Onartzea, 2026. urterako, EAEko landa- eta itsasertz-eremuak dinamizatzeko gizarte-ekitaldiak egiteko de minimis araubideari atxikitako laguntza-deialdiaren oinarriak. Agindu honen I. eranskinean jasota daude oinarriok.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, interesdunek berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaiokete Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urriaren 20a.

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
AMAYA BARREDO MARTÍN.

I. ERANSKINA

1. oinarria.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea da, 2026rako, gizarte-ekitaldiak sustatzeko laguntzak bideratzea, Euskal Autonomia Erkidegoko landa- eta itsasertz-eremua dinamizatzeko.

2. oinarria.– Onuradunak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko landa- edo itsasertz-eremuetan gizarte-ekitaldiak sustatzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko pribatuek edo publikoek jaso ahal izango dituzte laguntza horiek.

2.– Agindu honetan iragarritako edozein laguntzaren onuradun izateko, oinarri honetan ezarritako betekizunak bete behar dira, zeinek, era berean, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluko egoera galarazleak jasotzen baitituzte. Halaber, agindu honetan jasotako laguntza mota bakoitzaren betekizun espezifikoak ere bete behar dira; hauek:

a) Diruz lagundutako jarduera Euskal Autonomia Erkidegoko landa- edo itsasertz-eremu batean garatzea. Eremuok, betiere, ABEtik GV4ra eta L1etik L7ra bitarteko kalteberatasun/itsasertzekotasun-maila izan beharko dute (agindu honen II. eranskinean zehaztuta daude maila horiek).

b) Egunean izatea indarreko xedapenek zergen eta gizarte-segurantzaren arloan ezartzen dituzten betebeharrak. Baldintza hori bete beharko da hala onuradun izateko nola laguntza jasotzeko, eta, hortaz, egiaztapen-jarduerak bi unetan egingo dira: dirulaguntza ematen denean eta ordainketak egiten direnean.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 6. artikuluan xedatutakoaren arabera (Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa da agindua, baita dirulaguntzak itzultzeari buruzkoa ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan), automatikoki eta ofizioz egiaztatuko du Landa Garapenaren eta Europar Politiken Zuzendaritzak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla, eskatzaileak berariaz uko egiten ez badio; kasu horretan, betekizun horiek betetzen dituela egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko ditu.

c) Egunean izatea dirulaguntzak itzultzeko edo zehatzeko prozeduretako zenbateko zehatzen ordainketak, EAEko Administrazioak eta haren menpeko erakundeek emandako laguntzen edo dirulaguntzen esparruan.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera (Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa), dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketak egunean dituztela ulertuko da, baldin eta ez badute zorrik Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko edozein entitaterekin betearazpen-aldiko dirulaguntzen itzulketengatik edo, premiamendu-bidea baliatzerik ez duten pertsona edo entitateen kasuan, borondatezko epean erantzun gabeko zorrik ez badute. Era berean, betebehar horien ordainketak egunean dituztela ulertuko da, baldin eta zorrak geroratuta eta zatituta badaude, eta, gainera, zor, interes eta gastu guztiak estaliko dituen bermea eratu bada, edo etetea erabaki bada, dagokion itzulketa-ebazpenaren aurkaratzea dela eta.

d) Laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren epai irmo batez kondenatuta ez egotea, delitu hauetakoren bat egiteagatik: prebarikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, influentzia-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

e) Ez eragin izana Administrazioarekin egindako kontraturen baten amaiera irmoa, kausaren batean errudun deklaratua izateagatik.

f) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo pertsona juridikoen ordezkaritza legala dutenak ez egotea sartuta Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jarduna arautzeko martxoaren 30eko 3/2015 Legean, Herri-administrazioen Zerbitzura dauden Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean edo Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean aipatutako kasuren batean, edo ez izatea Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautetsiak, bertan ezarritako baldintzetan edo gai hori arautzen duen autonomia-erkidegoko araudietan ezarritakoetan.

g) Erregelamenduz zerga-paradisu gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean ez izatea zerga-egoitza.

h) Elkarteen kasuan, ez daudela sartuta Elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. apartatuetan aurreikusitako debekuen kausetan. Era berean, inskribatzeko administrazio-prozedura ez dagoela etenda ez-zilegitasun penalaren arrazoizko zantzuak aurkitzeagatik, aipatu Lege Organikoaren 30.4 artikuluan ezarritakoa aplikatzeko, harik eta ebazpen judizial irmoa egon arte; kasu horretan, dagokion inskripzioa egin ahal izango da, dagokion erregistroan.

i) Ez duela dirulaguntzak jasotzea galarazten dion zehapen-ebazpen irmorik, betiere bat etorriz lege honekin edo halakorik ezartzen duten beste batzuekin. Zehazki, ezingo dira dirulaguntzen onuradun edo entitate laguntzaile izan sexuan oinarritutako diskriminazioa egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat ezarri zaien pertsona fisikoak eta juridikoak, dagokion zehapenean ezarritako denbora-tarte osoan.

Halaber, laguntza eta dirulaguntzetatik kanpo geratuko dira Estatuko araudiaren arabera, berdintasun-plana indarrean izan behar duten arren, halakorik ez duten enpresak eta, Estatuko legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen moduan, sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresak.

j) Nekazarien elkarte eta antolakundeen kasuan, Emakume Nekazarien Estatutuaren urriaren 15eko 8/2015 Legean erabaki-organoetako ordezkaritza orekatuari buruz ezarritako atalaseak betetzea.

k) Enpresa edo entitateen kasuan, desgaitasuna duten pertsonentzat lanpostuak erreserbatzeko legez ezarritako kuota bete ez izana, hura betetzeko neurri alternatiboak abian jarri direla frogatu gabe.

l) LGTBIfobia egin, bultzatu edo sustatu ez izana, bihurketa-terapiak sustatu edo egitea barne, Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluaren arabera.

3.– Onuradun izateko Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 11.4 artikuluan aurreikusitako taldeak, taldekide guztiek bete beharko dituzte 1. apartatuan aurreikusitako betekizunak.

4.– Ezingo dute dirulaguntzarik jaso, halaber, entitate eta enpresa hauek: haien buru diren pertsonak edo beste inguruabar batzuk kontuan hartuta, aurretik debekua jaso duten entitate eta enpresen jarraipen izan daitezkeela pentsatzeko bidea ematen dutenek edo entitate edo enpresa haien aldaketa, bat-egite edo ondorengo izan daitezkeela pentsatzeko bidea ematen dutenek.

5.– Ezingo dira inola ere agindu honetan aurreikusitako dirulaguntzen onuradun edo entitate laguntzaile izan Elkartzeko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. apartatuetan aurreikusitako debekuren bat jaso duten elkarteak. Era berean, ezingo dira izan onuradun edo entitate laguntzaile, baldin eta inskribatzeko administrazio-prozedura eten bada ez-zilegitasun penalaren zentzuzko zantzuak egon direlako, aipatu Lege Organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, harik eta ebazpen judizial irmoa eman, eta, horren bitartez, inskripzioa dagokion erregistroan egin ahal izan arte.

6.– 2. apartatuko a), c), f), h), j), k) eta l) letretan eta 5. apartatuan jaso diren eskakizunak automatikoki hartuko dira aintzat, eta bere horretan iraungo dute kasu bakoitzean zehaztutako egoerek irauten duten bitartean.

7.– 2. apartatuko d) eta i) letretan jasotako betekizunak automatikoki hartuko dira aintzat. Epai edo ebazpen irmoak ezarriko du debekuaren irismena. Halakorik ez bada, irismena arauz zehaztutako prozeduraren bidez ezarriko da, eta ezingo da bost urtetik gorakoa izan debekua ez bada epai irmo baten ondoriozkoa.

8.– Onuradun edo entitate laguntzaile izatea galarazten duen debekurik ez dutela frogatzeko –artikulu honen 2. apartatutik 5.era bitarte aipatu dira debekuak–, bide hauek dituzte pertsona edo entitateek: lekukotza judiziala, ziurtagiri telematikoak edo datu-transmisioak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak teknika elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabiltzeko dagokion araudian ezarritakoaren arabera, edo, bestela, ziurtagiri administratiboa, kasuaren arabera. Eskumena daukan agintariak ezin badu agiri hori eman, aukeran da, horren ordez, administrazioko agintari baten aurrean edo notario publiko baten aurrean egindako erantzukizunpeko deklarazio bat entregatzea.

3. oinarria.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta jarduerak.

1.– Gizarte-ekitaldiak lagunduko dira diruz, baldin eta EAEko landa- eta itsasertz-eremua dinamizatzen laguntzen badute, eremu horretan eragin ekonomiko positiboa badute, eta, bat etorriz Landa-ingurunearen Garapenaren ekainaren 30eko 7/2022 Legean ezarritakoarekin, hau sustatzen badute:

a) Landa-ingurunearen kultura- eta identitate-ondare materiala nahiz immateriala babestea.

b) Landa-eremuak berreskuratzea, kontserbatzea eta zabaltzea.

c) Gastronomia eta landa-turismoa.

d) Landa-eremuetako kultura eta ondarea ezagutaraztea, hedatzea eta balioztatzea sustatzea, gizartean oro har landa-eremuko prozesuei eta balioei buruz dagoen jakintzarik eza gainditze aldera.

e) Landa-eremuaren dibertsifikazio ekonomikoa.

f) Landa-ingurunearen despopulatzeari eta zahartzeari buelta ematea, bai eta gazteak landa-ingurunera erakartzea ere.

g) Familiak landa-ingurunean finkatzea.

Kanpoan geratzen dira nekazaritza-jarduerarekin zuzeneko lotura duten ekitaldiak, hala nola merkatuak, nekazaritzako elikagaien azokak eta herriko jaiak, bai eta toki-entitateek antolatzen dituzten eta toki-entitateon urteko programazioaren parte diren jarduerak ere.

2.– Deialdi honen babespean, eskatzaile bakoitzeko ekitaldi bakarrak jaso ahal izango du dirulaguntza. Ez dira aintzat hartuko, eta baztertu egingo dira, beste proiektu baterako dirulaguntza jaso duen entitate batek egindako eskaera berriak, salbu eta aurretik jasotako dirulaguntza horri uko egiten bazaio. Era berean, aurretik erregistratutako eskabide bat ebazteke duen entitate batek beste eskaera bat aurkezten badu, automatikoki atzera egindakotzat joko da aurreko eskaera horretan, eta harekin lotutako prozedura amaituko da; horretarako, atzera egiteari buruzko ebazpena emango da, 13. oinarrian ezarritako moduan.

Hala ere, diruz lagundu ahal izango dira gehienez 15 eguneko epean garatzen diren jarduera bat baino gehiagoz osatutako ekitaldiak, baldin eta jarduera horiek behar bezala identifikatzen badira eskatutako laguntzaren xede den ekitaldiaren zati gisa betiere. Kasu horretan, eskabidean zehatz-mehatz identifikatu eta justifikatu beharko dira ekitaldia osatzen duten jarduerak edo ekitaldiaren faseak.

3.– Jarduerak osorik 2026an egin beharko dira diruz lagundu ahal izateko.

4. – Ez dira diruz lagunduko 5.000 biztanletik gorako udalerrietan egiten diren ekitaldien eskabideak (EUSTATek argitaratutako azken errolda ofizialeko datuak hartuko dira kontuan).

5.– Diruz lagundu ahal izango dira laguntzaren xede diren jarduerak egitearekin zuzenean lotuta dauden gastu guztiak, baldin eta 2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean sortzen badira, eta justifikazio-epea amaitu aurretik zerrendatu, kuantifikatu eta ordaindu badira.

Gastu hauek sartzen dira (zerrenda soila da, ez dira denak aipatzen):

a) Eskatutako laguntza xede duen ekitaldia egiteko langileak kontratatzeko gastuak (kanpoan geratzen dira erakunde eskatzailearen plantillako langileak).

b) Ekitaldia eta jarduerak gauzatzeko zerbitzu profesionalen errentamendua.

c) Lokalen alokairuak (bazter utzita erakunde onuradunaren egoitza sozialaren alokairua).

d) Ekitaldiak eta jarduerak gauzatzeko instalazioak eta zerbitzu teknikoak.

e) Laguntzaren xede diren ekitaldien publizitatearekin eta hedapenarekin lotutako gastuak.

f) Nahitaezko aseguruak kontratatzea.

g) Emandako garaikurrak edo sariak.

h) Legeria nazionalaren arabera berreskuratu ezin den BEZa.

6.– Inolaz ere ez dira diruz laguntzeko moduko gastuak izango inbertsioak edo kapital-gastuak, ezta jarduerari lotutako beste zerga edo tributu batzuk ere, aurreko apartatuan aipatutako BEZ berreskuraezina izan ezik.

7.– Diruz lagundu daitezkeen gastuei dagokienez, eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30.3 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa 15.000 euro edo handiagoa bada, gutxienez hiru hornitzaile desberdinen eskaintzak eskatu beharko ditu onuradunak, obrarako konpromisoa kontratatu aurretik, zerbitzua eman aurretik edo ondasuna entregatu aurretik, non eta, haien ezaugarri bereziak direla-eta, merkatuan ez den aski erakunde eskaintza horiek egin, eman edo entregatzeko, edo non eta gastua ez den dirulaguntzaren aurretik egin. Kasu horietan, kostuak neurriratzea frogatu beharko da, dagokion justifikazio-memoriaren bidez.

Eskaintzek benetakoak eta ez-fikziozkoak izan behar dute, hornitzaile erreal eta independenteenak, eta behar bezain zehatzak izan behar dute, eta elementu berak izan, alderagarriak izateko. Aurkeztutako hiru eskaintzetatik bat hautatzeko, efizientzia- eta ekonomia-irizpideak erabiliko dira, eta, proposamen ekonomikoki abantailatsuena hautatzen ez bada, memoria batean beren-beregi justifikatu beharko da horren arrazoia.

4. oinarria.– Dirulaguntza jaso duten jarduerak kontratatzea onuradunek.

1.– Onuradunak diruz laguntzen den jarduera azpikontratatu ahal izango du, gehienez ere jardueraren zenbatekoaren % 70era arte.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 29. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 68. artikuluan xedatutakoa aplikatuta, onuradunak azpikontratatu duela ulertuko da, hirugarrenekin hitzartzen duenean dirulaguntzaren helburu den jardueraren egikaritze partziala edo osoa. Hortik kanpo gelditzen dira diruz lagundutako jarduera bere kontura gauzatu ahal izateko onuradunak egin behar dituen gastuak, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 31.1 artikuluak ezartzen duenari jarraituz.

2.– Onuradunaren aurrean baino ez daude behartuta kontratistak, eta onuradunak osorik bereganatuko du diruz lagundutako jarduera gauzatzearen ardura.

3.– Aurreko apartatuan jasotakoa betetzeko, diruz lagundu daitekeen jarduera hirugarrenekin itundua egikaritzean, onuradunen erantzukizuna da zaintzea mugak errespetatzen direla, diruz lagundutako gastuen izaerari eta zenbatekoari dagokienez, bai eta 7. oinarrian ezarritako betebeharrak errespetatzen direla zaintzea ere.

4.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 42. artikuluan aurreikusitako lankidetza-betebeharra bete beharko dute kontratistek, muga horiek betetzen direla behar bezala egiaztatu ahal izateko.

5.– Onuradunak ezin izango du diruz lagundutako jardueren exekuzio osoa edo partziala hitzartu Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13.1 eta 14. artikuluetan jasotako debekuekin loturaren bat duten pertsonekin.

5. oinarria.– Dirulaguntzen zenbatekoa, mugak eta bateragarritasuna.

1.– Laguntza horien zenbatekoak ez du jardueraren kostu osoaren % 60 gainditukо, eta ez da 15.000,00 eurotik gorakoa izango.

2.– Laguntza bakoitzaren banakako zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko da 6. oinarriaren arabera lortutako puntuazioaren eta pertsona onuradunak eskatutako zenbateko diruz lagungarritzat jotako gastuaren arteko proportzionaltasun zuzena, taula honetan zehaztutako mugak errespetatuz, betiere (gutxienez 50 puntu lortuz gero):

Jardueraren puntuazioa	Gehieneko zenbatekoa (euro)
90 baino gehiago	15.000
80 eta 90 artean	13.000
75 eta 79,9 artean	11.000
70 eta 74,9 artean	9.000
65 eta 69,9 artean	7.000
50 eta 64,9 artean	5.000
50 baino gutxiago	0

3.– Dirulaguntzen zenbatekoa, bakarka hartuta edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk batuta, ez da inoiz izango diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

4.– Laguntza hauek bateragarriak izango dira beste administrazio publiko batzuek helburu bererako ematen dituztenekin, baldin eta guztien artean ez bada gainfinantzaketarik gertatzen diruz lagundutako jardueran. Gainfinantzaketarik gertatuz gero, dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu beharko da, soilik jarduera horren guztizko kostua gainditzen duen zenbatekoan.

5.– Era berean, laguntza hauek batu ahal izango zaizkie beste administrazio publiko batzuek, agindu honetakoak ez diren xedeekin, onuradun berdinei emandako de minimis laguntzei; halere, guztien artean ez dute 300.000 euroko laguntza gaindituko, onuradun bakoitzeko eta laguntza eman den dataren aurreko hiru urtean, erregelamendu honek xedatutakoaren arabera: Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluak de minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 2023ko abenduaren 13ko Batzordearen 2023/2831 (EB) Erregelamendua. Kasu horretan, gehieneko zenbateko horretara egokitu arte gutxituko dira agindu hau betez eman beharreko zenbatekoak.

6. oinarria.– Laguntzen finantzaketa, eta laguntzak emateko eta zenbatekoa zehazteko prozedura.

1.– Agindu honen arabera eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura 2026ko ekitaldian eman beharreko laguntzen gehieneko zenbatekoa 200.000 eurokoa da.

2.– Laguntza horiek esleitzeko, segidako emakida-prozedura erabiliko da; beraz, espedienteak eskabideen aurkezte-ordenaren arabera aztertu eta izapidetuko dira, eta behar bezala formulatu eta osatu diren ordenaren arabera ebatziko dira.

3.– Laguntza hauetara xedaturiko aurrekontua agortuz gero, egoeraren berri emango da Landa Garapenaren eta Europar Politiken zuzendariaren ebazpen baten bidez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuta. Dagoeneko aurkeztu diren eta izapide-fasean dauden eskaerak, baldin eta esleitutako aurrekontu-zuzkidura agortzeagatik erantzun ezin badira, ukatu egingo dira arrazoi hori dela eta, Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordearen ebazpen baten bidez.

4.– Aurkeztutako jarduera bakoitzari eman beharreko laguntzaren zenbatekoa zehazteko orduan, aurkeztutako eskabideak baloratuko dira. Eskabide horiei aplikatuko zaizkie erakunde sustatzaileari, jarduera edo proiektuari eta kokapenaren kalteberatasun/itsasertzekotasun-mailari buruzko irizpideak, taula honetan jasotako baremazioaren arabera:

<table>
<tr><th>Balorazio-irizpidea</th><th colspan="3">Deskribapena</th><th>Puntuazioa</th></tr>
<tr><td rowspan="4">Erakunde sustatzailea (15 puntu)</td><td rowspan="4">Erakunde mota (10 puntu)</td><td colspan="2">Tokiko erakundea</td><td>10 puntu</td></tr>
<tr><td rowspan="3">Beste erakunde mota bat</td><td rowspan="3">Eskatutako jarduerarekin edo proiektuarekin lotutako esperientzia</td><td>5 urte edo gehiagoko esperientzia egiaztatua: 10 puntu</td></tr>
<tr><td>2 eta 5 urte arteko esperientzia egiaztatua: 8 puntu</td></tr>
<tr><td>2 urtetik beherako esperientzia egiaztatua: 6 puntu</td></tr>
</table>

Balorazio-irizpidea	Deskribapena		Puntuazioa
Erakunde sustatzailea (15 puntu)	Tokiko eragileen inplikazioa (5 puntu)		Tokiko eragileak inplikatuta daude: 5 puntu
			Tokiko eragileak ez daude inplikatuta: 0 puntu
Jarduera edo proiektua (60 puntu)	Ekitaldiaren berezitasuna (5 puntu)	Ekitaldi berezia	5 puntu
		Aldizkako ekitaldia	Ez du laguntzarik jaso laguntza-deialdi honen aurreko edizioetan: 5 puntu
			Laguntza jaso du laguntza-deialdi honen aurreko edizioetan: 0 puntu
	Bideragarritasun ekonomikoa (10 puntu)		Jardueraren kostuaren % 30era arte eskatzen bada: 10 puntu
			Jardueraren kostuaren % 31 eta % 45 artean eskatzen bada: 8 puntu
			Jardueraren kostuaren % 46 eta % 60 artean eskatzen bada: 6 puntu
	Inpaktua (45 puntu)	Nori zuzenduta dagoen (5 puntu)	Jarduera denei zuzenduta dago: 5 puntu.
			Jarduera sektore jakin bati zuzenduta dago: puntu 1
		Eragin-eremua (10 puntu)	Nazioartea edo estatua: 10 puntu
			EAE: 9 puntu
			Lurralde historikoa: 8 puntu
			Eskualdea: 7 puntu

Balorazio-irizpidea	Deskribapena				Puntuazioa
Jarduera edo proiektua (60 puntu)	Inpaktua (45 puntu)	Eragin-eremua (10 puntu)			Tokikoa: 5 puntu
		Inpaktu ekonomikoa (20 puntu)	Ekitaldia antolatzeko tokiko baliabideetan egingo den gastuaren ondoriozko inpaktua (eskualdeko hornitzaileak edo kontratatutako langileak) (6 puntu)	Tokiko baliabideetan gasturik ez	0 puntu
				Tokiko baliabideetan egindako gastua ekitaldiaren kostuaren % 20 baino txikiagoa	5.000 eurotik beherako kostua guztira: puntu 1
					5.000 eta 20.000 euro arteko kostua guztira: 3 puntu
					20.000 eurotik gorako kostua guztira: 4 puntu
				Tokiko baliabideetan egindako gastua ekitaldiaren kostuaren % 20 eta % 60 artekoa	5.000 eurotik beherako kostua guztira: 2 puntu
					5.000 eta 20.000 euro arteko kostua guztira: 4 puntu
					20.000 eurotik gorako kostua guztira: 5 puntu
				Tokiko baliabideetan egindako gastua ekitaldiaren kostuaren % 60 baino handiagoa	5.000 eurotik beherako kostua guztira: 3 puntu
					5.000 eta 20.000 euro arteko kostua guztira: 5 puntu
					20.000 eurotik gorako kostua guztira: 6 puntu
			Ekitaldia egingo den udalerriko/kontzejuko/toki-erakunde txikiko biztanleak (12 puntu)	2.501 eta 5.000 biztanle artean: 2 puntu	
				1001 eta 2500 biztanle artean: 4 puntu	
				501 eta 1000 biztanle artean: 6 puntu	
				251 eta 500 biztanle artean: 8 puntu	
				0 eta 250 biztanle artean: 12 puntu	
			Eskualdean duen eragin ekonomiko gehigarria eta/edo dinamizatzailea (2 puntu)		Bai: 2 puntu
					Ez: 0 puntu

Balorazio-irizpidea	Deskribapena		Puntuazioa
Jarduera edo proiektua (60 puntu)	Inpaktua (45 puntu)	Berdintasunerako ekintza positiboak (5 puntu)	Bai, egokia: 5 puntu
			Ez: 0 puntu
		Hedapen-ekintzak (5 puntu)	Bai, eraginkorra: 5 puntu
			Ez: 0 puntu
Kalteberatasun- / itsasertzekotasun-maila (25 puntu)	Jarduera egingo den eremuaren kalteberatasun- / itsasertzekotasun-maila.	I. eranskinaren arabera. Kalteberatasuna eta itsasertzekotasuna partekatzen duten erakundeen kasuan, bietatik puntuaziorik altuena emango da (GV edo L).	ABE edo L1 25 puntu
			GV2 edo L2: 21 puntu
			GV3 edo L3: 17 puntu
			GV4 edo L4: 13 puntu
			L5: 9 puntu
			L6: 5 puntu

7. oinarria.- Onuradunen betebeharrak.

Onuradunek betebehar hauek izango dituzte, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. artikuluan ezarritakoez gain:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Ildo horretan, onuradunak ez badio dirulaguntzari espresuki eta idatziz uko egiten dirulaguntza eman izanaren jakinarazpena jaso duen egunetik hasita 10 eguneko epean, onartu egin duela joko da.

b) Dirulaguntza eman den xede zehatzerako erabiltzea.

c) Onuradunak, halakorik eskatzen bazaio, informazio osagarria bidali beharko du landa-garapenaren eta europar politiken arloan eskumena duen zuzendaritzara, hark aukera izan dezan diruz lagundutako jardueren garapenaz eta burutzapenaz egoki iritzitako egiaztapen guztiak egiteko.

d) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, beren eginkizunetan dihardutela, deialdi honen kontura jasotako dirulaguntzen inguruan eskatutako informazioa ematea.

e) Dirulaguntza emateko kontuan hartzen den egoera subjektibo edo objektiboren bat aldatzen bada, aldaketaren berri eman behar diote landa-garapenaren eta europar politiken arloan eskumena duen zuzendaritzari, idatziz. Egoera horren berri izan bezain laster jakinarazi behar zaio, eta, betiere, jasotako funtsei emandako erabilera justifikatu baino lehen.

f) Jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatzen duten agiriak gorde behar dituzte, agiri elektronikoak barne, egiaztatzeko eta kontrolatzeko ekintzak gauzatzeko erabil baitaitezke.

g) Beren-beregi adierazi beharko da Eusko Jaurlaritzaren babesletza euskarri, kartel, seinale, sari, garaikur eta diruz lagundutako jardueretan, baldin eta jarduerak berak publizitatzekoak, hedatzekoak edo zabaltzekoak badira, Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Nortasunaren Eskuliburuan ezarritakoaren arabera: http://www.euskadi.eus/erakunde-ikurrak-eta-nortasuna/web01-s1ezaleh/eu/. Txertatu beharreko logoa erabiltzaileen eskura jarriko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan, esteka honetan:

https://www.euskadi.eus/servicios/1017307

h) Jarduerarekin lotutako jakinarazpen guztietan, hizkuntza inklusiboa erabiliko da irudietan zein testuetan. Ekitaldiaren publizitatean, euskarria edozein dela ere, ez da erabiliko hizkuntza edo irudi sexistarik.

i) Edizioa, komunikazio-euskarria edozein dela ere, gutxienez euskaraz egin beharko da, kasu guztietan.

j) Pertsonen bertaratzeari eta parte-hartzeari buruzko informazioa sexuen arabera bereizita lortu eta eskaini beharko da.

k) Zergen arloko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, eta dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta izatea, dirulaguntza guztiz likidatu arte. Laguntza honen organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du betebehar hori betetzen dela, onuradunen berariazko baimenik behar izan gabe; beren-beregi uko egiten zaionean salbu, kasu horretan onuradunak egiaztatu beharko baitu betekizun hori.

8. oinarria.– Eskaerak, dokumentazioa eta aurkezteko epea.

1.– Eskabideak, oinarri honen 8. apartatuan aurreikusitako agiriekin batera, Landa Garapenaren eta Europar Politiken zuzendariari zuzenduko zaizkio.

Aurkezteko epea agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta horretara bideratutako aurrekontua agortzen denean amaituko. Kasu horretan, 6. oinarriaren 3. apartatuan xedatutakoa errespetatu beharko da. Betiere, eta aurrekontua izanda ere, laguntza-eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoaren arabera, Administrazioarekin harremana elektronikoki izatera behartuta daudenek eskabideak elektronikoki aurkeztuko dituzte, oinarri honetako 3. apartatuan adierazitako helbideen bitartez.

Pertsona fisikoek aurrez aurre zein bide elektronikoa erabiliz aurkez ditzakete eskabideak. Eskabidea eta dokumentuak aurrez aurre aurkezteak edo bide elektronikoa erabiltzeak ez du esan nahi nahitaez baliabide horiek erabili behar direnik prozeduraren ondorengo izapideetan, edozein unetan alda daitezke eta.

– Aurrez aurre: Eskabideak Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren bulegoetan aurkeztuko dira (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluak xedatzen dituen tokietariko edozeinetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren organismo autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuaren arabera. Eskatzaileak postetxe batean aurkezten badu eskabidea, gutun-azal irekian egin beharko du, postako langileek zigila dezaten eta data ezar diezaioten.

– Bide elektronikoz: 3. apartatuan adierazitakoaren arabera.

3.– Eskaerak elektronikoki nahiz aurrez aurre aurkezteko, inprimaki-eredu normalizatua erabiliko da, helbide honetan eskuragarri dagoena:

https://www.euskadi.eus/servicios/1017307

4.– Kanal elektronikoaren bidez eskabidea egin ondorengo izapideak –jakinarazpenak eta justifikazioak barne– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bitartez egingo dira:

https://www.euskadi.eus/nirekarpeta

5.– Izapideak elektronikoki egiteko, helbide honetan eskuratu daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak:

https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak

6.– Eskabidea ordezkari baten bitartez egiten bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. eta 6. artikuluetan xedatutakoaren arabera egiaztatu beharko da ordezkaritza. Ordezkaritza Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Ahalordeen Erregistro Elektronikoan inskribatu ahal izango da, helbide honen bidez:

https://www.euskadi.eus/ordezkariak

7.– Laguntza-eskabidearen ereduaren oinarrizko edukia eskuragarri egongo da https://www.euskadi.eus/servicios/1017307 web-orrian, eta agindu honen V. eranskin gisa argitaratu da.

8.– Eskabidearekin batera, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

a) Eskabidea ordezkari baten bitartez egiten bada, ordezkaritza egiaztatu beharko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. eta 6. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Ildo horretan, eta agindu honen esparruan, ordezkaritza egiaztatuta dago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren ordezkarien erregistro elektronikoan inskribatuta badago (https://www.euskadi.eus/ordezkariak). Ordezkaritza erregistro horretan inskribatuta ez badago, borondatezko ordezkaritza emateko inprimaki normalizatua betez (https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/eskabidea/borondatezko-legezko-ordezkaritza-egilestea-inprimaki-normaldua/) edo zuzenbidean onartutako beste edozein modutara egiaztatu beharko da ordezkaritza.

b) Pertsona juridikoek, eratze-eskrituraren kopia bat eta estatutuen kopia bat (dagokion erregistroan inskribatu dela adierazten duen zigilua jarrita), eta, hala badagokio, gerora erregistratutako eskrituren kopia, enpresa gaur egun zer egoeratan dagoen egiaztatzeko.

c) Nortasun juridikorik gabeko entea izanez gero, eratze-eskrituraren kopia eta osaeran edo funtzionamenduan aldaketak ekarri dituen ondorengo beste edozein eskriturarena.

d) Azken 5 urteetan Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzarik jaso ez bada, hirugarrenaren alta-agiria; helbide honetan dago eskuragarri:

https://www.euskadi.eus/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/web01-tramite/eu/.

e) Aurrekontuak eta proformako fakturak, gastua justifikatzeko. Jatorrizko formatuan eta modu indibidualizatuan aurkeztuko dira. Eskaintza faltsuak aurkezten badira, laguntza-eskaera ukatu eta otsailaren 28ko 147/2023 Errege Dekretuaren I. eranskinean aurreikusitako zigorrak aplikatuko dira.

f) Ekitaldiari buruzko informazioa biltzen duen memoria, agindu honen III. eranskinean aurreikusitako ereduaren arabera. Memoria horretan, landa- eta itsasertz-eremuen dinamizazioaren deskribapenaz gain, haren justifikazioa, egikaritze-epeen aurreikuspen bat, eta alderdi hauei buruzko datuak gaineratu beharko dira: finantzaketa, kokapena, enpleguaren sorrera, bideragarritasun ekonomikoa, genero-ikuspegiaren inklusioa, aurreikusitako inpaktuaren justifikazioa eta hedapena, hau da, partaide kopurua eta aurreikusitako publikoa, sexuen arabera bereizita, eta neurketa-sistemaren azalpen labur bat, bai eta jarduerak izango duten inpaktu ekonomikoaren aurreikuspena ere. Aurkezten ez diren datuak edo informazioa ezin izango dira kontuan hartu haren balorazioa egiteko.

g) Erantzukizunpeko adierazpena, hauei buruz:

1) Aurkeztutako dokumentu guztiak egiazkoak direla.

2) 2.2. oinarrian ezarritako baldintzak betetzen direla.

3) Enpresa-deslokalizaziorik ez egiteko konpromisoa hartzea, abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluan ezartzen den moduan.

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioren bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaratzen dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

h) 50 langile baino gehiago dituzten entitate eskatzaileen kasuan, Berdintasun Plana, zeina eskatzen baita Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan xedatutakoaren arabera, bai eta plan hori erregistratuta dagoela adierazten duen frogagiria ere.

i) 50 langile baino gehiago dituzten enpresa eskatzaileen kasuan, desgaitasuna duten langileentzat plantillaren % 2ko erreserba-kuota bete izanaren jakinarazpena edo, bestela, hori betetzeko neurri alternatiboak abian jarri izanaren egiaztagiria.

j) Nekazarien elkarte eta antolakundeen kasuan, erabaki-organoetako ordezkaritza orekatuari buruz Emakume Nekazarien Estatutuan ezarritako mugak betetzea.

